



NAFARROA

POPULATZE PROZESUA ETA HIRIAK

☐ Bideoa ikusi.  ¿Conoces el "Efecto Navarra"? | Ezagutzen al duzu "Nafarroa efe..."


☐ Nafarroako hirien sorrera.

harresituak Iruñea erromesen Erdi Aroan Tafalla industria bigarren
Barañain musulmanek erromatarren Lizarra Atarrabia Islamaren



Nafarroako hiri eta hiribildu asko funtzio militarrekin sortu ziren _____ ,
hau da, lurraldea defendatzeko; hortaz, hiri _____ ziren. Adibidez, _____ .
Beste adibide bat _____ da. _____ hedapenari aurre egiteko defentsa-gunea
izan baitzen. Hala ere, _____ garaian sortu zen.
Tutera, Nafarroako _____ hiri garrantzitsuena, _____ sortu zuten
IX. mendearen hasieran.

Nafarroako beste hiri eta biztanlegune ugari X. eta XI.mendeetan sortu ziren Donejakue
Bidea zela eta, _____ premiei aurre egiteko. Adibidez, _____ .
Beste zenbait hiri (_____ , Burlata, Zizur Nagusia eta _____) landaguneak
izan dira duela hamarkada gutxi batzuk arte, baina hiriburutik gertu egoteagatik
_____ garatu eta hiri gisa hazi dira.



- ☐ Nafarroako hiri-sarearen egitura oso hierarkizatuta dago. Kokatu bakoitza bere tokian.

Altsasu	Tafalla	Lizarra	Elizondo	Cintruénigo	Iruñea	Tutera
---------	---------	---------	----------	-------------	--------	--------

Lehendabiziko mailan			
Bigarren mailan			
Hirugarren mailan			

- ☐ Aukeratu erantzun zuzena.

Zein da biztanle gehien duen udalerrria?

- Tutera.
- Barañain.
- Iruñea.

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- a) 10.000 inguru
- b) 100.000 inguru.
- c) 200.000 inguru
- d) 250.000 inguru

Zenbat udalerrik osatzen dute Nafarroako Foru Komunitatea?

- a) 272
- b) 292
- c) 252
- d) 242

Zenbat hiri-udalerri daude Nafarroan??

- a) Zortzi: Iruña, Tuter, Barañain, Burlata, Zizur Nagusia, Lizarra, Antsoain eta Tafalla.
- b) Hamar: Iruña, Tuter, Barañain, Eguesibar, Burlata, Zizur Nagusia, Lizarra, Antsoain, Tafalla eta Atarrabia.
- c) Lau: Iruña, Tuter, Lizarra eta Tafalla.
- d) Hiru: Iruña, Tuter eta Lizarra.
- e) Hiri bakarra dago: Iruña.

Non kokatzen dira Nafarroako udalerri gehienak?

- a) Landa- eremuan
- b) Hiri-eremuan
- c) Ibaien ertzetan.
- d) Iruñetik gertu.

Nafarroa osoko biztanleekin konparatuta, zenbat biztanle bizi dira Iruñean?

- a) Nafarroa osoko %70,5a
- b) Nafarroa osoko %30,5a
- c) Nafarroa osoko % 55,5a
- d) Nafarroa osoko % 60,5a

Noiz sortu zen Iruñea?

- a) Erdi Aroan.
- b) Erromatarren garaian.
- c) Munduko bigarren guda ostean.
- d) Guda zibilaren ondoren.

Zer dira Tafalla, Tuter eta Lizarra?

- a) Nafarroako hiri politenak.

- b) Eskualdeburuak dira.
- c) Nafarroako hierarkian hirugarren mailako hiriak dira, eta inguruko herrien buru.
- d) Inguruan dituzten herrien ekonomia eta zerbitzu gune gisa jarduten dute.
- e) b eta d zuzenak dira.
- f) b eta c zuzenak dira.